

Prentsa oharra

Nota de prensa



2022ko azaroaren 25a

Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

#kontrolsexista
#controlsexista

Azaroaren 25ean, ostiralean, Emakumeen kontrako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izango da, eta Donostiako Udalak gizarte honetako gaitz horri aurre egiteko kanpaina bat diseinatu du, bai eta hainbat jarduera prestatu ere.

«Indarkeria sexistak aldaera asko ditu», adierazi du Ane Oyarbide Berdintasuneko zinegotziak. «Adin, jatorri, erlijio eta kultura guztietako emakumeok kultura patriarkala nagusi delako pairatzen dugu indarkeria mota hori, gizonak oraindik ere emakumeak baino are botere handiagoa duelako. Bide luzea dago egiteko beharrezko eta bidezko berdintasuna lortzeko».

Emakumeak eta haien gorputzak, sexu-aukerak eta bizimoduak kontrolatzeko ohiko ereduak, kalera irteteko kontrolari, mugikorraren kontrolari eta halakoei, azkenaldian, kontrol digitala gehitu behar zaie, emakumeen -batez ere emakume gazteen- aurkako jazarpena baita hor nagusi.

Prentsa oharra

Nota de prensa

«Donostiak, Gipuzkoak eta Euskadik bezala, oraindik ere pairatzen du gizarte gisa lotsatzen gaituen gaitz hori», Oyarbidek nabarmendu duenez. Azken urteotan, nabarmen handitu da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei ematen zaien arreta: 2019an, 362 emakume artatu ziren, hamar harrera-etxebizitzatan. 2020an 443 emakume, sei pisutan, eta iaz 486 emakume hartu ziren, bost pisutan. Hazkunde jasanezina da gizarte aurrerakoi eta berdinzale batentzat.

Aurten ere, Donostiako Udalak erasoen aurkako kanpaina bat prestatu du, Usandizaga institutuko Diseinu Grafikoko goi-mailako ikasle eta irakasleen laguntzarekin.

Usandizaga institutuko Aleksa Todorova eta Sandra Fernández ikasleek diseinatu dute kanpaina, eta haren helburua azaldu dute: *#controlsexista Gizarte libre eta ireki bat aldarrikatu nahi dugu, inork kontrolatu gabe bizi ahal izateko. Guk, Diseinu Grafikoko ikasleok, salatu egin nahi dugu oinarri gisa egitura eta jarduteko modu sexistak eta matxistak duen gizarte baten aldetik egunero jasaten dugun kontrola.*

Aski da, ez dugu nahi inork kontrolatzea eta beldurraren patroiak kopiatzea. Kontrol sexistak manipulazio psikologiko eta emozional mota bat da, bikotean eta, oro har, gizartean gertatzen dena, pertsonaren sexuaren eta generoaren arabera botere-harreman bat sortzeko eta mantentzeko. Kontrol hertsatzaile hori mehatxuen, umiliazioen, larderiaren eta eraso fisikoen bidez sendotzen da. Batzuetan agerikoak dira, beste batzuetan lausoagoak eta ia ikusezinak.

Beldur izatea parrandan ateratzean, argazki bat argitaratzean zer esango duten, norekin ateratzen zaren, nola janzten zaren, etxera zer orduan joaten zaren: egiturazko kontrol baten alderdiak dira eta hori *salatu nahi dugu.*

Kontrola ezabatu nahi dugu:

- Iritziaren kontrola
- Ordu-tegien kontrola
- Lagunen kontrola
- Janzkeraren kontrola
- Sare sozialen kontrola
- Mugikorraren kontrola

Komunikabideok zeregin garrantzitsua duzue gure bizitzaren kontrola berreskuratzeko borroka honetan.

Aske eta beldurrik gabe bizi ahal izateko sistema bat berrabiarazteko, ezabatu kontrol-teklak».

#controlsexista

Prentsa oharra

Nota de prensa



Donostiako Udalak indartu egin du emakumeen kontrako indarkeria matxistaren aurkako konpromisoa, ez gaur bakarrik, baizik eta urte guztian.

Gogoratu behar da hainbat zerbitzu daudela edozein motatako indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzat: aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa, emakumeen jabetze-prozesuak indartzeko talde-lana, autodefentsa feministako lantegiak. Horrelako zerbitzuak prebentzio-kanpainekin eta atalen eta erakundeen arteko beharrezko koordinazioarekin indartzen dira. Horretan dihardute, gainera, emakumeen elkarteek, eta Udalak bereziki aitortzen du haien lana.

Programa:

Hala, hiriko haurtxokoen eta gaztelekuen sarean gai hori lantzeko hainbat jarduera egingo dira: ipuin-kontalariak, txapak egitea, hormak pintatzea eta abar.

Donostiak Beldur Barik lehiaketan ere parte hartu du, eta azaroaren 25ean Artea sariak emango zaizkie gure hiriko obrei, Victoria Eugenia antzokiko Klub aretoan, 18:00etan. Ekitaldia Nerea Arriola Urberuaga umoregile eta antzerki-irakasleak dinamizatuko du.

Bestalde, Ekialdeko Barrutiko Berdintasun lantaldeak dantza- eta poesia-ikuskitun bat antolatu du, bai eta indarkeria matxistari buruzko hitzaldi bat ere.